

# txintxarri

## Iritsi da eguna

Korrika nagusia zein txikia Lasarte-Oriara heldu dira. Ongietorri beroa egite aldera, jarduera ugari egiten ari dira herrian / 6-9

**2 BETAURREKO  
GRADUATU  
SOILIK 59€**

ESKAINZA BARRUAN

ukipen-lenteak doan hilabete baterako  
+  
premium azterketa bisuala  
+  
gogobetetze-bermea



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multipopticas.com   

# Komunikazio ez bortitzean trebatu dira

Treba Gurasoak programaren baitan, Nerea Mendizabalen bisita izan dute asteen Lasarte-Oriako gurasoek. Seme-alabekin komunikazio ez bortitzean aritzeko hainbat gako eman dizkie adituak; kantu bat ere abestu die saiora bertarututako entzuleei

## Txintxarri

Harremanak zaindu eta modu eraginkorrean kudeatzen lagundu dezakeen komunikatzeko modua aurkeztu die Nerea Mendizabal zestoarrak Lasarte-Oriako hainbat gurasori. Treba Gurasoak programaren barruan antolatu dute hitzaldia, Oriarte Landaberrin. Familiako kideen beharrak ezagututa, etxeko giroaz gozatzeko gakoak jaso dituzte entzuleek. Seme-alabekin komunikazioa, harremanak, emozioak, gatazkak eta bestelakoak lantzeko azalpenak eman ditu.

Komunikazio ez bortitzaz hitz egiteko, bortizkeria eta ez bortizkeriaren arteko aldeaz aritu da. Horretarako, Marshall Rosenberg autorearen (komunikazio ez bortitzaren autorea da) hausnarketak ekarri ditu. Bereizketa hori azaltzeko bi animalia erabili zituen Marshallek, txakala eta jirafa, eta horiek berak erabili ditu Mendizabalek saioan ere. Esku batean txakal panpina bat eta jirafarena bestean hartuta hasi zaie hizketan entzuleei. Komunikazio bortitza irudikatzen du lehenak. Basoan bizi den animalia da, eta bertan aurkitzen duen edozein zailtasunen aurrean eraso egiten du. Bere burua



Nerea Mendizabal aditua gurasoei azalpenak ematen. TXINTXARRI

gatazkaren aurrean arriskuan badago, alde egiten du. Horrekin lotu du komunikazio bortitza: garrasiak, mehatxuak, exijentziak, zigorrak, eta abar. Jirafak, berriz, lepo luzea duenez, distantziatik begiratzen du bere ingurua, alturatik, perspektibatik, eta bihotz handiena duen animalia dela ere argitu du, eta hizkuntza ez bortitzari erreferentzia egiteko erabili du.

Gaineratu du gurasoa bizitzen ari den baldintzek eragin zuzena dutela komunikazio mota bat edo bestea erabiltzearekin. Baldintza onetan denbora

eskaintzen diete seme-alabei, haurrak entzun eta elkar ulertzeko tarteak hartzea errazagoa zaiela, baita euren erritmoak errespetatzea ere. Baldintza kaskarretan, aldiz, garrasiak, mehatxuak eta zigorrak gailentzen direla. Nabarmendu du jirafaren jarrera izan nahian, ezinezkoa dela txakal izateari uztea, baina garrantzitsuena, izaten ari garen komunikazioari erreparatzea dela, epaitu gabe, ulertuz nondik komunikatzen ari garen.

Gitarrak lagunduta abesti bat ere abestu die saiora bertaratu direnei.

## Ludoteka itxita egongo da hilaren 9tik 24ra bitarte

Ukrainako biktimentzat laguntza biltzen ari den taldeak jakinarazi du ludoteka itxita egongo dela hilaren 9tik 24ra

## Txintxarri

Gerrako biktima ukrainiarrentzat laguntza biltzen ari den boluntario taldeak ezagutarazi du Ola kaleko Ludoteka itxita egongo dela apirilaren 9tik 24ra, bi

egunak barne. Bien bitartean, gogoratu dute ordutegia hau dela: 11:00etatik 13:00era goizetan, eta 16:00etatik 19:00etara arratsaldeetan.

Hasi dira errefuxiatu familiak herrira iristen, eta

haientzako produktu sortak eramateko eskatu diete lasarteoriarrei: kilo bat arroz, pasta, lekale edo azukre; litro bat olio; gaileta zorro bat; kafea, tea edo kakaoa; nahiz hiru kontserba lata.

Ohar bidez, eskerrak eman dizkiete aste hauetan zehar era batera edo bestera lagundu duten herritarrei, eta horretan jarraitzea animatu. "Materialez betetako beste furgoneta bat bidali dugu berriki, mila esker denoi!"



Herritarrak, Andatza plazan astero egiten den merkatuan erosketak egiten. TXINTXARRI

## Asteroko merkatua arautuko duen ordenantzan parte hartzeko

Kaleko salmenta arautzeko ordenantza bat egingo du udalak; hori diseinatzeko parte hartze prozesua deitu du

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak asteroko merkatuko eta kaleko salmentaren ezarpena eta ezaugarriak arautuko dituen ordenantza bat egitea aurreikusi du – Jabari Publikoko eta Erabilera Publikoko Lurzoruak Ostalaritzarako Okupatzea Arautzeko Ordenantza-. Kontsulta publikoak asteroko merkatuko eta kaleko salmentako baldintzak arautzea du helburu.

Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Legeak herritarrek lege-mailako arauak

eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzko 133 artikuluan ezartzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua egin baino lehen kontsulta publiko bat egin behar da. Apirilaren 29ra arte egongo da parte hartzeko aukera eta hauek dira udalari proposamenak bidaltzeko bideak: udal erregistroan idatzi bat aurkeztuz; [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus) helbidera mezu bat bidalita, edo [www.lasarte-oria.eus/eu/partehartzea](http://www.lasarte-oria.eus/eu/partehartzea) web atariaren bidez.



USURBILGO LANBIDE ESKOLA

## Usurbildik, Herbeheretara

Usurbilgo Lanbide Eskolako Mekanika eta Mantenuko ikaste eta irakasleak Herbehereetan izan dira, lau egunez, bertako Da Vinci College eta Delfion Collegeko kideekin lanean, Edutrans izeneko egitasmoa aurrera eramateko. Horren helburua trantsizio energetikoari buruzko ikasketak planak eta prestakuntza ereduak garatzea da, enprekin elkarlanean.

# Aurtengo udako txokoak aurkeztu ditu udalak

Izen ematea hilaren 27an hasi eta maiatzaren 1ean amaituko dela zehaztu du udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik, eta herritarrek sarean edo presentzialki matrikulatu ahaliko dute. Bi txanda egingo dituzte udako txokoetan, uztailean bat eta abuztuan bestea

## Txintxarri

Udako txokoak prest ditu Lasarte-Oriako Udalak. Horien nondik norakoak aurkeztu dituzte Antonio Mercero gunean, eta udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik hartu du hitza. "Matrikulazioa hilaren 27an irekiko dugu, eta azken eguna maiatzaren 1a izango da, igandea". Sarean (<http://cl.sport-madness.com/udakotxokoak/>) edo presentzialki (hilaren 27tik 29ra, Antonio Mercero gunean) izena eman ahaliko dute herritarrek, nahiz eta antolatzaileek Internet erabiltzea gomendatu duten, koronabirusa tarteko. Aurrez aurreko inskripzioak egiteko ordutegiak hauek dira: 11:00etatik 13:00era edo 16:30etik 18:00etara hilaren 27an eta 28an, eta goizez soilik 29an, 11:00etatik 13:00era.

"Printzipioz, 450 toki eskainiko ditugu, eta izena eman dutenen hurrenkera izango da horiek esleitzeko irizpidea", nabarmendu du Antxordokik. "Lasarte-Orian erroldatuta dauden haurrek izango dute lehentasuna". Edonola ere, herrian erroldatuta ez baina herriko ikastetxeren batean ikasturte hau egiten ari diren haurrek ere matrikulatu ahal izango dira. "Toki guztiak beteko ez balira, baldintza horietako bat bera ere betetzen



Udaleko eta Loiri enpresako ordezkariak, txokoaren aurkezpenean. TXINTXARRI

ez duten haurrek ere izena eman ahal izango dute".

## Uztailean eta abuztuan

Udalaren udako txokoek bi txanda izango dituzte aurten ere, uztailean bat eta abuztuan bestea, eta bakoitzean bi modalitate izango dituzte aukeran herritarrek: hiru ordukoa (10:00etatik 13:00era) edo lau ordukoa (09:00etatik 13:00era). Gaztetxoa Haur Hezkuntza ikasten ari bada eta Maialen Chourraut kiroldegiko bazkide, 105,30 euro edo 141,40 euro ordaindu beharko ditu, segun eta zenbat orduko txanda aukeratzaren duen. Aldiz, Lehen Hezkuntza egiten ari bada

eta ez bada kiroldegiko bazkide, 121,40 euro edo 157,55 euro. Txokoak Sasoeta zein Garaikoetxea eraikinetan aurrera eramango dituzte.

Gizarte larrialdietako laguntzak jasotzen dituzten herritarrek gainerako udal zerbitzuetan dituzten hobari berak izango dituzte, %25 eta %100 artekoak. Bestalde, seme-alaba bat baino gehiago matrikulatzen den kasuetan ere hobariak izango dira: bi kide direnean, %10; hiru kide direnean, %30; eta lau edo gehiago badira, %50. 943-37 61 84 edo 644 53 32 70 telefonoetara dei daiteke informazio gehiago eskuratzeko.



Lasarte-Oriako EAGI zentroko ikasle talde bat, lanean. TXINTXARRI

## Euskara, "funtsezkoa" lan munduan

Buruntzaldeko sei udalek 2022-2023 ikasturterako eskaintza aurkeztu dute, eta Lanbide Heziketa euskaraz egiteko aukeren berri eman. Euskaraz enpresetan eta gizartean "gero eta toki handiagoa" duela iritzita, herritarrek hizkuntza horretan formatzen jarraituz animatu dituzte. Posta arruntaz edo ikastetxeen bidez eskuorriak banatuko dituzte.

Lasarte-Orian, adibidez, EAGI zentroan izango dute ikasleek Lanbide Heziketa euskaraz egiteko aukera. Erdi mailan bi ziklo egin ahaliko dituzte: eraikuntzako teknikaria izatekoa edo barnealde, dekorazio eta birgaitze obretako teknikaria izatekoa. Goi mailan, aldiz, eraikuntza obrak antolatze eta kontrolatzeko goi mailako teknikaria izateko zikloa. Informazio gehiagorako, [eagi@eagi.eus](mailto:eagi@eagi.eus) helbide elektronikora idatzi edo 943-56 92 22 telefono zenbakira dei daitezke.

Leizaran institutuak, La Salle Berrozpek zein Escivi Zine eta Bideo Eskolak ematen dute lanbide heziketa euskaraz egiteko aukera Andoainean; Hernanin, Gizarte Berrikuntzako LHIII eta Aratz ikastolak; Urnietan, Salesiar ikastetxeak eta CESA Centro de Estudios Sanitarios-ek; eta Usurbilen, Usurbil LHIII. Esteka honetan duzue informazio zehatzagoa: <https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1649149714839-lanbide-heziketa-euskaraz-egiteak-ate-guztiak-irekitzen-dituela-nabarmendu-dute-eskualdeko-udalek>.

## Euskara ongi jakitea, "erabakigarria"

Eskualdeko udalek nabarmendu dute prestatzen ari diren gazteen etorkizunean "erabakigarria" izan daitekeela euskara ongi jakitea, eta horretarako "funtsezkoa" dela lanbide heziketako zikloa aukeratzeko garaian D eredukoa lehenestea. Horrez gain, ikasketa horiek euskaraz eginez gero, B1 (erdi mailako zikloak eginez gero) zein B2 (goi mailakoak eginez gero) agiriak eskura ditzakete ikasleek.



## BEGIRALE LAN-POLTSA

(Udako Txoko eta udalekuetarako)

**18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali eskaera-orria beteta maiatzaren 2a baino lehen.**

**BALORATUKO DIRA:** -Begirale edo zuzendari titulua. - EGA edo baliokidea den agiria. - Ikasketak. - Lan esperientzia.

**BEHARREZKOA:** -Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria: [www.labur.eus/ttakunbegiraleak2022](http://www.labur.eus/ttakunbegiraleak2022)  
[begiraleak@ttakun.eus](mailto:begiraleak@ttakun.eus) | Geltoki 4 Lasarte-Oria | 943-37 14 48

# Donostialdeako hainbat leku bisitatzeko gonbita

Donostialdeako gastronomiaz, kulturaz eta naturaz gozatzeko eskaintza egin du Behemendi elkarteak. Aste Santuko oporraldiari begira luzatu du hainbat leku bisitatzeko gonbita; horien artean Donostiako Hipodromoko zaldi lasterketak

## Txintxarri

Hernaniko Chillida-Leku museoa da bisitatzeko proposatu duten lehen lekua. Eduardo Chillidaren obra jasotzen duen aire zabaleko museoa da eta tamaina handiko 40 eskultura ikus daitezke bertan, besteak beste. Ostiral, larunbat, igande eta astelehenetan dago zabalik, 10:00etatik 17:00etara, eta prezioak aldakorrak izan daitezke adinaren arabera. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak [reservas@museochillidaleku.com](mailto:reservas@museochillidaleku.com) atariara jo dezake, edota 943-33 59 59 telefono zenbakira deitu.

Andoingo Plazaola-Leitzararen bailararen eskaintza ere egin du Behemendik. Bertan dagoen uraren

interpretazio zentroa da eta bisita gidatuak egiten dituzte. Horrez gain, bizikletak alokatzeko aukera ere badago; hiru orduz alokatzeak hamabost euroko kostua du, eta sei orduz edo egun osorako hartzeak, berriz, hogeiturokoak. Ibilbide tematikoak ere proposatu dituzte; Leitzarango biotopo eta inguruko fauna eta flora, kultura eta mitologia ezagutzeko aukera izango dute interesatuek. Horrekin batera, gidaritza zerbitzua ere badago.

Leitzarano Ferrata Bidea izan daiteke beste aukera bat; Leitzarango bailara gaur egunera arte ikusi ez den ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera paregabea

eskaintzen du. Bertan parte hartzeko ezinbestekoa baldintza batzuk bete behar ditu bisitariak, honako hauek: gutxienez 140 zentimetroko altura izatea eta gehienez 120kg-ko pisua. Arropa eta oinetako egokiak eramatea ere nahitaezkoa da. Honako hauek dira prezioak: tarifa orokorrak 35 euroko kostua du, baina andoaindarrek, aldiz, hamalau euro ordaindu behar dituzte. Jarduera horretan parte hartzeko erreserba aurrez egitea ezinbestekoa da. Hau da Aste Santuko nahiz Pazko Asteako ordutegia: 10:30etik 18:00etara egongo da irekita, egunero. Informazio gehiago nahi duenak 943-30 09 29 telefono

zenbakira dei dezake, edo [info@leitizaran-andoain.eus](mailto:info@leitizaran-andoain.eus) helbidera idatzi.

## Oria ibaian barrena

Aginagatik Oriora, Oria ibaian barrena kaiak jaitsiera egiteko proposamena ere ezagutarazi dute. Familian egiteko jarduera da, baina igeri egiten jakitea beharrezkoa da. 39 euroko kostua du pertsona bakoitzeko begiralearekin batera egin nahi bada, eta 25 eurokoa pertsona bakoitzeko, begiralerik gabe kontratatzen bada. Prezioak barne hartzen ditu kayak bikoitza, pala, txalekoa, bidoi bat kayak bakoitzeko, neoprenoa, arropa eta erantzukizun zibileko aseguruak. Informazio gehiago eskuratzeko eta erreserbak egiteko 657 79 46 77 telefono zenbakia edo [info@begibistan.com](mailto:info@begibistan.com) helbidea jarri dituzte eskuragarri.

Sagardoaz gozatzea ere izan daiteke aukera on bat, Astigarragako Sagardoetxeak plan bereziak prestatu baititu. Museoak bisitatzeari, inguru naturaletan paseatzea, sagardotegietan edota jatetxeetan otorduak egitea, sagardo eta pintxo dastaketak eta txango bizikleta elektrikoetan. Erreserbak egin

edota informazio gehiagorako honako bideak ezagutarazi dituzte: 943-55 05 75 telefono zenbakia eta [info@sagardoarenlurraldea.eus](mailto:info@sagardoarenlurraldea.eus) helbidea.

Hernaniko hirigune historikoa ezagutzeko aukera ere izango da. Larunbatetan eta igandetan goizez eta Aste Santuko ostiralean izango da bisita gidatua egiteko aukera. Informazio gehiago jaso edota erreserbak egiteko 943-33 70 28 telefono zenbakia edo [turismoa@hernani.eus](mailto:turismoa@hernani.eus) helbidea jarri dituzte eskuragarri.

Bestalde, Hernanitik gertu dagoen Galarreta frontoian egun baten erremontista izateko aukera ere izango da. Larunbatero egingo dituzte bisita gidatuak, 14:45etik 16:30era, eta 943-55 10 23 telefonora dei daiteke informazio gehiago eskuratzeko edo [www.galarretajaijai.com](http://www.galarretajaijai.com) ataria bisitatu.

Azkenik Donostiako Hipodromoko udaberriko zaldi lasterketen egitaraua. 20 lasterketa izango dira, apirileko lau ostiraletan banatuta (1, 8, 15 eta 22). Programa osoaren berri izan nahi duenak [www.hipodromoa.com](http://www.hipodromoa.com) ataria bisita dezake, edo 943-37 32 40 telefonora deitu.

# Imagine jantzi denda, Buruntzaldeko bitxia

Gipuzkoako Bazkondeak 10 Bitxiak sarien bidez, eskualde bakoitzean "distira" gehien duen merkataritza establezimendua aukeratzen du. Aurtengo sariketan, Buruntzaldekoa Lasarte-Oriako Imagine jantzi dendak irabazi du

## Txintxarri

Gipuzkoako Bazkondearen 10 Bitxiak sarierako bat jaso du Lasarte-Oriako Imagine arropa dendak. Buruntzaldea eskualdeari dagokiona lortu du hain zuzen, Ainhoa Oyarbide negoziaren jabeak, eta horren inguruan hitz egin du TXINTXARRI-rekin.

Kontatu du saria irabaztea "sekulako poza eta esperientzia berri bat" izan dela. Egun batean aipatu sarien berri ematen zuen Gipuzkoako Bazkondearen mezu elektronikoa bat jaso zuen, eta interes gehiegirik piztu ez zionez, kasu gehiegirik ez egitea erabaki zuela. Egun batzuk igarota, ordea, pentsatu zuen aukera polita izan

zitekeela parte hartze hutsa, eta gerta zitekeenaren esperoan sarierarako izena ematea erabaki zuen.

Jakinarazi du, aurtengo komertzioetako bezeroen ardura izan dela bozkak ematea, eta hori lagungarri izan zaio Oyarbideri. Arropa dendaren sare sozialetan jarri zuen sariketan parte hartzen ari zela, eta babes ederra jaso zuen: "Egun batean, dendan lasailasai nengoela bazkondeko kide bat agertu zen. Zertara ote zetorren ba ote nekien galdetu zidan, eta nik ezetz. Orduantxe esan zidan Buruntzaldeako eskualdeari zegokion 10 Bitxiak aintzatespen irabazlea nintzela".

Konfidentzialtasun kontratu bat sinatu behar izan zuela ere ekarri du gogora.

## "Munduko bezero onenak"

Oso eskertuta agertu da Oyarbide bere dendako bezero guztiekin, "munduko onenak" direla nabarmendu du: "Oso eskertuta nago beraiekin". Ahalegin handia egiten du horiei guztiak ahalik eta tratu gertukoena emateko: "Bezero izatetik lagunak izatera igaro dira asko".

Dendara ekartzen dituen salgaiak ere horien pentsatuz erosten ditu, "denen gustuko jantziak" egon daitezkeen: "Eskaerak ere egiten dizkirate eta horien



Ainhoa Oyarbide bere jantzi dendan, bazkondearen saria eskuetan duela. TXINTXARRI

betetzen saiatzen naiz, nahiz eta beti ezinezko zaidan". Jendeak tratu hori asko eskertzen duela uste du.

## Sare sozialak, ezinbestekoak

Buru-belarri aritzen da dendaren sare sozialak astintzen. Argi dauka salmentak izateko ezin duela bezeroak etorri zain, eskuak gurutzatuta geratu: "Bezeroen sakelakoan, ordenagailuan, etxean sartzea ezinbestekoa da negozioak aurrera egin dezan". Aitortu du

"lan asko" dela hori kudeatzea, baina "ezinbestekoa" ere bai.

Elkarrizketa amaitu aurretik azpimarratu nahi izan du, pandemia garaian bezeroek herriko komertzioetan erosteko hartu zuten ohitura galdu egin dela: "Badakit prezioen gorakadak beldurra eragin diola jendeari, baina pena handia ematen dit; herriko establezimendu txikiak galtzen badira, hil egingo dira herriak. Familia ugari nirea bezalako negozio txikiak atzean".



2018ko udaberriko bertso saioa. Aurtengoan ere parte hartuko dute Egizabal, Labaka eta Lujanbiok. TXINTXARRI

# Bertsolaritza eta dantza itzuliko dira apirilean

Hilabete honetako kultur agendaren berri eman du Lasarte-Oriako Udalak, eta askotariko osagaiak ditu: margolaritza, zinema, antzerkia, opera, dantza, historia eta bertsolaritza. COVID-19agatik atzeratu edo hilabetez aldatu behar izan diren ekitaldi batzuk bueltan dira

## Txintxarri

Faouzi Boutaghrassa margolari gaztearen erakusketak ireki du apirileko agenda. Antonio Mercero gunean jarri dituzte ikusgai bere lanak, 24ra arte, igandez. Astegunetan 18:00etatik 21:00etara irekiko dute aretoa, eta larunbatetan, 17:00etatik 19:00etara. Sarrera doakoa da.

Zinema, antzerkia eta opera ez dira inoiz falta hilabeteroko kultur agendan. Orotara zortzi film proiektatuko dituzte apirilean, horietatik bi, Okendo Zinema Taldeak: *Licorice Pizza* 8an, eta *Espíritu sagrado* 22an. Bi emanaldiak 20:30ean hasiko dira, eta sarrerek 6 euro balio dute. Gainerako pelikula hauek

dira: *Ainbo*, *Amazoniako gerlaria*; pelikula onenari Oscar saria irabazi berri duen *CODA* (bi horiek hilaren 3an eman zituzten); *Kaporito*, *el guardián de la montaña* (haurrentzat, 10ean, 17:00etan); *Código Emperador* (helduentzat, 10ean, 19:30ean); *Sonic 2* (haurrentzat, 24an, 17:00etan); eta *Competencia*

*Oficial* (helduentzat, 24an, 19:30ean). Haurrentzako paseetarako sarrerek 4 euro balio dituzte, eta helduentzako direnek, 6.

Bestalde, *El Mundo Lirondo* haurrentzako antzezlan emango du Spasmo Teatro konpainiak hilaren 9an, 17:00etan, eta apirilaren 23an *Lehendakari Gaia* antzezlan ekarriko du Txalo Produksioak konpainiak. 20:00etan hasiko da emanaldia kultur etxean, eta sarrerek 6 euro balio dute. Apirileko opera emanaldia *Romeo y Julieta* ballet klasikoa izango da, apirilaren 13an, 19:00etan, kultur etxeko auditorioan. Txartelek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

## Ekitaldi ezagun batzuk, bueltan

Dantzaren Nazioarteko Eguna da apirilaren 29a, eta aurtengoa ederki ospatuko dute diziplina horren bueltan aritzen diren herriko eragileek. Egun bat lehenago, Okendo plazan, 19:00etan, emanaldiak egingo dituzte. Pandemiaren eraginez, azken bi urteetan ezin izan dute halakorik egin, ohiko formatuan behintzat. Oriarte Landaberri institutuan elkartu ziren iaz.

Koronabirusak izan du eraginik udaberriko bertso saioan ere: 2020koa udazkenara atzeratu behar izan zuten, eta iaz, birusaren oldarraldi betean, bertan behera uztea erabaki zuten antolatzaileek. Aurten, ordea, ez da hala izango, eta

hilaren 30ean jarri dute hitzordua, 20:30ean. Oholtza gainera igoko dira Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin, eta baita hainbat gonbidatu berezi ere, Bea Egizabal aktorea tartean. Ekitaldi hori Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen du, udalarekin elkarlanean. Sarrerek 6 euro balio dute.

Horiez gain, ondo bidean, Erketz EDTk maiatzean egin izan dituen Dantzari eta Dantzari Txiki egunak berreskuratuko ditu, eta 2020ko martxotik pilotutako gauza txar guztiak erre ahalko dituzte herritarrek ekainaren 23an, Andatza Plazan, San Joan Suaren garretan.

## Hitzaldia eta erakusketa

Noaingo guda 1521eko ekainaren 30ean izan zen, eta hori irabazita, Gaztelako Erresumak Nafarroakoa konkistatu zuen, nahiz eta lurralde hori defendatu zutenek erresistentzia handia egin. Bataila horren bueltakoak gogoratze aldera, pare bat jarduera egingo dituzte apirilean: batetik, *Noaindik Amaiurrera 1522-2022* hitzaldia, Beñi Agirre adituaren eskutik, Antonio Mercero gunean, 26an, 19:00etan; eta, bestetik, *Noaingo bataila lau artistaren begiradapean* erakusketa, Antonio Mercero gunean baita ere, 26tik 29ra, 18:00etatik 20:30era.

Hilabete honetako hitzordu guztiak TXINTXARRI-ren atari digitaleko Agenda atalean kontsulta ditzakezue.

## 'Juguetes de niño sádico' liburua ondu du Olga Serranok

Lasarteoriatarren lehen lanak alor asko jorratzen ditu, eta batez ere, bilaketa pertsonala. Alberdaniak argitaratu du

## Txintxarri

"Myriam da nobelako protagonista, eta kontakizuna hasten denean egoera pertsonal oso zail batean dago: aitona hil berri da, eta haren hilketza aukeratu behar du. Familian duen harreman afektibo egonkor bakarra galdu du, ama eta anaiarekin ez baita ongi moldatzen. Une horretatik aurrera, hankaz gora jarriko zaio bizitza". Olga Serrano idazle lasarteoriatarren hitzak dira. Azalpen horiek eta beste asko eman zituen *Juguetes de niño Sádico* liburuaren aurkezpenean,



Olga Serrano, liburuarekin. ALBERDANIA

Donostian, hilaren 5ean. Nobela bat idazten duen lehen aldia da, eta Alberdania argitaletxearekin publikatu du. Jorge Gimenezek editatu du, eta agerraldian azaldu zuen "sentsibilitate artistiko handiko autorea" dela Serrano.

Idazleak azpimarratu duenez, protagonistak "krisi gogor bat" biziko du, eta horrekin bilaketa pertsonal prozesu bat hasiko du, gizakien arteko harremanetan ardaztuta: familia, lagunak, alor profesionala, sexualitatea... Zentzu horretan, adierazi du sexua "espizituki eta naturalki" landu duela, eta "sutsuki" aldarrikatzen duela hori. "Uste dut, denbora luzez, emakumezko ahots literarioei ebatsi egin zaiela hori". Gehitu du nobelaren beste oinarrietako bat dela artea, hori esploratzea, ez soilik sortzeko, baita ere bizi eta emozionatzeko.

## Pablo Barrio herritarraren 'Dzist-Dzast', taula gainera

Iruñean estreinatuko dute lana, hilaren 9an. Nafarroako zenbait ikastetxerentzako emanaldiak ere egingo dituzte

## Txintxarri

Nafarroako Antzerki Eskolaren iazko lehiaketa irabazi zuen Pablo Barrio herritarrak, euskarazko kategorian: *Dzist-Dzast* lana aurkeztu zuen. Orduan iragarri zuena bete egin da, eta ikasleek hilaren 9an estreinatuko dute obra, 18:00etan, eskolak Iruñean duen aretoan (San Agustin kalea, 5). Sarrerek 6 euro balio dute. Xabier Artieda da zuzendaria, eta aktoreak, hauek: Xabier Flamarique, Eva Azpilikueta, Jaione Urtasun eta Itsaso Etxeberrria.

Bestalde, Nafarroako zenbait ikastetxetan emanaldiak egingo dituzte, hilaren 11tik 13ra. Elkarrekin bizi diren hiru belaunaldi ezberdineko hiru emakumeek sortzen duten familiaren istorioa da *Dzist-Dzast*.

Idazle lasarteoriatarrek, esan bezala, iazko edizioa irabazi zuen, Nafarroako Haurrentzako Antzerki Testuen 30. lehiaketa. Ez da lehen aldia izan, 2006an eta 2007an ere bere lanak saritu zituztelako, *Abere hatsak eta beste animalia batzuk* eta *Herioa azeri hori*, hurrenez hurren.

# Korrika aurreko beroketa

Euskal Herrian barrena dabil 22. Korrika. Euskararen aldeko aldarria, ostiralean heldu da Lasarte-Oriara. Egun horri begira egindako lana eta antolatutako ekimenak ezagutarazi ditu Muntteri AEK-k hilaren 1ean kultur etxean egindako aurkezpen galan

## Maitane Aldanondo

Hitzetatik ekintzatarara pasatzeko garaia da eta horixe egin dute Lasarte-Oriako hainbat elkartetan eta eragilek. Euskararen aldarriaren erakusgarri den Korrika antolatzen laguntzeaz gain, kilometroa erosi dutenak ere batu ziren kultur etxean. Eskuz esku doan lekukoa hilaren 8an hartzekoak ziren elkarte eta eragileek astebete lehenago jaso zituzten euren petoak aurtengo omenduen eskutik.

Ongietorri gisa, Erketz EDTko dantzariak agurra dantzatu zuten, eta ondoren, Earra bertso eskolako irakasle Lierni Rekondok bertso pare bat bota zituen Lasarte-Oriaren euskalduntzeari buruz lehena, "aspaldi hasi genuen gure arteko iraultza/eta orain lehenesten dugu hizkuntzaren artisautza"; eta leloari helduta, ekintzaren beharraz, bigarrena: "Amurriotik atera, Donostiaraino ekin/hizkuntza garena bada, babes dezagun hitzekin".

Maidar Seguroa kazetariak aurkeztu zuen eragileei eskerrak eman, herritarrekin bildu eta aurtengo omenduei aitortza egiteko ekitaldia. Aurtengo Korrikari buruzko zenbait datu eman zituen, haren "motorra

zangoak baino gehiago mihia" dela gogoratuta. Pailazoak agertokira gonbidatu aurretik, herriko beste bi kultur taldek egin zuten emanaldia: Kukukako kideek *Hitzekin* dantzatu zuten eta Xumelakoek bi abesti kantatu. Josu Txapartegi *Txapas*-ek esan zuenez, euskara txori bat bezala ikusten du eta "gauza gutxi izango dira munduan txori bat aske ikustea baino ederragoak". *Aldapeko sagarraren* abesten hasi, eta amaitu gabe, *Txorria txori*-ra salto egin zuten, hasierakoarekin amaitzeko.

## Omenduak eta petoak

Ostiralerako prestatutako ekimen zerrenda errepasatu zuen jarraian Seguroak, eta 2019ko Korrika gogoratzeke, TXINTXARRI-ko argazki batzuekin osatutako bideoaren bidez. Amaitzean, pailazoak irten ziren agertokira eta aitortza nola jaso duten azaldu zuten. Duela urtebete baino gehiago jakinarazi zieten eta hunkituta bezain pozik daude. Sudurgorriak aurtengo omenduak badira ere, lana eginarazi zieten. Banan bana igo ziren 18 kilometroak osatzeko ardura hartu duten 32 elkarteak agertokira; Porrotzek bakoitzari

buruzko zerbait esan zuen, Marimototsek, berriz, besarkada bana eta Korrikan soinean eramateko petoa eman zien. Ondoren, talde argazkia egin zuten denek elkarrekin.

Dantza gehiago izan ziren oholza gainean, baita pailazoentzako aintzatespen bideo bat ere. Txiki-txikiak zirela bertan agertzen zirenak koskortu dira jada *Saturnino* dantzatzeko batu zitzaizkien pailazoei. Azken txanpan, euskararekin izandako harremanaz mintzatu ziren bi protagonistak, besteak beste, AEK-Muntteri euskaltegiko garaia. Irakasle izan zituzten eta bertan daudenei eskertza gisa, Txoribox ekimeneko kabi bat eman zioten hunkituta jaso zuen Olatz Urdanpilleta irakasleari eta beste bat euskaltegiko kideei.

Argazkia atera eta elkarrekin ekaitzari dei egin ondoren -kalean, inork gonbidatu gabe, kazkabarra gogotik ari zuen-, gehienak oihal atzera joan ziren. Inaki Dorransoro eta Garazi Zinkunegi, ordea, bertan gelditu ziren esker hitz batzuk esateko. Horiek amaituta, Ttirriki Ttarrakako kideek itxi zuten emanaldia.



Xumela koruko kideek bi abesti ezagun kantatu zituzten. TXINTXARRI



Kukuka Antzerki Ta Dantza Eskolako gazteek *Hitzekin* dantzatu zuten. TXINTXARRI



Txoribox bat oparitu zioten AEK-Muntteriko irakasle Olatz Urdanpilletari. TXINTXARRI



## ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

IKA, IKA, IKA  
BADATOR KORRIKA!

Aupa Lasarte-Oriako  
korrikalariak!

22.korrika  
HITZEKIN

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA



Korrika 22ko kilometroren bat erosi dute herriko 32 eragile, elkarte eta erakunde gehienek euren petoa jaso zuten. TXINTXARRI



Porrotx eta Marimotots oso presente egon ziren gala osoan zehar: dantzatu, hitz egin eta petoak banatu zituzten. TXINTXARRI

22.korrika *æk*  
**KULTURALA**

HITZ EKIN

**Apirilaren 8an**  
**06:30** txistulariak  
**07:11** iritsiko da 22. Korrika herrira, Zubietatik.  
**08:26** joango da Urrietara.  
**11:00** Korrika Txikia herrian.  
**13:00** Korrika Txikiko koreografia Okendo plazan.  
**13:30** makarroi jana ikasleentzat, Okendon.  
**Ondoren**, bingo musikatua.  
**17:30** euskal jolasak Ostadar SKTren eskutik.  
**18:00** barraren irekiera, gazte mugimenduaren eskutik, Okendon.  
**19:00** jaialdia egingo dute Earra bertso eskolakoek  
**Jalgi kafe antzokian.**  
**19:30** batu-poteoa, Dinbi Banda taldeak gidatuta.  
**20:30** afari merienda Okendo plazan.  
**Maiatzaren 27an**  
**19:00** kultur etxean 'Dendaostekoak' irakurraldi bertsoa.


korrika.eus

**Ges**  
aseguruak

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

tipi-tapa tipi-tapa KORRIKA! HITZ EKIN

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



# Txoriek kabiak egin ahal izateko habia kutxak

Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, Txoribox egitasmoan parte harzen ari dira Lasarte-Oriako ikasleak. Txorien ezagugarriak ezagutu eta kabiak egin ditzaten habia kutxak eta jantokiak sortzen aritu dira. Porrotx pailazoaren bisita izan dute

## Txintxarri

Txorien habia kutxak zintzilikatu eta hegaztientzako jantokiak eta hegaztientzako jantokiak nola egin ikasi dute Lasarte-Oriako ikasleek. Aranzadi elkartearen ordezkarien bisita izan dute eta horiek arduratu dira proiektuaren berri emateaz. Gure ondare naturala babestu eta zaintzeko interesa eta ardura handitzeaz gain, natura eta aisia uztartzeko bideak gero eta gehiago dira, eta hegaztiak heziketa eramaile bikainak direla azaltzen du zientzia elkarteak. Horregatik, Ornitologia Sailak hegaztien ezagutzarekin lotura duen Txoribox ingurumen heziketa proiektua jarri du abian. Horren helburu nagusia da ikasleak, naturaren eta faunaren ezagutza, kontserbazioa eta ikerkuntzaren garrantziaz jabetzea. Horretarako tailerrak egiten dituzte ikastetxeetan, eta oraingoan, Lasarte-Oriako Sasoeta ikastolako eta Landaberri ikastolako haurrekin egon dira.

Olatz Aizpuru Aranzadi Zientzia Elkartearen kideak bisitatu ditu ikastetxeak, eta bere laguntzaz ikasi dituzte ikasleek hegaztien ezagugarriak. Baina ez hori bakarrik; habia kutxak egiten ere ikasi dute, eta baita txorientzako jantokiak ere.

Aizpuruak nabarmendu du habia kutxen garrantzia: "Gure hiri eta herriko zuhaitzek ez dute berezko zuloarik, eta, ondorioz, horiek behar dituzten hegaztiak, Trogloditek, ezin dituzte habiak egin, eta horri irtenbide emateko dira habia kutxak, hor egiten dituzte kabiak".

Hori horrela gertatzen dela ziurtatu ahal izan dute Sasoeta ikastetxeko ikasleek. Izan ere, Aranzadien tailerra egin aurretik, zintzilikatuak zituzten lau habia kutxa eta horietan txoriek habiak topatu dituzte, eta horiek garbitzen aritu direla kontatu du Aizpuruak: "Udaberria

iristen denerako, kabi berriak egin ditzaten garbi egon behar dute habia kutxek".

Lan berdina egin dituzte Landaberriko seigarren mailako ikasleek ere, eta hegaztientzako jantokiak ere bai (Sasoetakoek ere egin dituzte). Material birziklatuekin egin dituztela azaldu du Aizpuruak eta ikasle bakoitzak bere etxera eramateko aukera izan du.

Hilaren 7an, berriz, herriko pailazo bihurriaren bisita izan zuten Zumaburuko HH 3, 4 eta 5. mailako eta Garaikoetxeako HH 3, 4 5 eta LH 1 eta 2. mailako ikasleekin. Korrika herrira iritsi bezperan, motorrak berotzeko.



Landaberriko ikasleak Aranzadi kideekin txorientzako jantokiak eskuan. J.M.AGIRRETXE



Sasoetako ikasleek ere txorientzako habia kutxak egin dituzte. J.M.AGIRRETXE



Garaikoetxeako haurrek ere ederki pasa dute Porrotxekin. TXINTXARRI



Korrika herrira iritsi bitartean, herriko ikasleekin egon da Porrotx. TXINTXARRI

bertako  
igogailuak | ascensores

22.korrika  
HITZ EKIN  
Amurriotik Donostia  
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

**EUSKARA,**  
**GURE HELBURU KOMUNA**

ARABA  
945 712 822

BIZKAIA  
946 523 935

GIPUZKOA  
943 903 450

NAFARROA  
848 870 917

DEITU EDO BISITATU  
[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)





**korrika**  
**JARRAIPEN**  
**BEREZIA!**



**KORRIKA TXIKIA**  
**ARGAZKI GALERIAK**  
**BIDEOAK**  
**KORRIKA ZUZENEAN**



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

Zenbat dakizu **korrika z?**  
**10 GALDERA** ausartzen zara? **sariak**

denak asmatzen dituztenen artean **KORRIKA** produktuak (bi sorta)  
 parte-hartzaile guztien artean **Avenida tabernako patata-tortilla**



**Mait**



**ETELU**



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



**KORRIKA BADATOR!**

# Ostadarreko atleta gazteak, lehen postuetan

Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketako lehen jardunaldia lehiatu da Eibarren. Ostadar SKTko 30 atletek parte hartu dute. Lehen postuetan izan dira horietako batzuk eta bost domina ere lortu dituzte. Hilaren 10ean, bigarren jardunaldia izango dute

## Txintxarri

Ostadar Atletismoa saileko gaztetxoek Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketako lehen saioa lehiatu zuten, hilaren 3an, Eibarreko Unbe zelaian. Ordezkaritza mardula eraman zuten herriko atletismo taldeak, 30 parte-hartzaile izan ziren proba ezberdinetan eta lehen postuetan sailkatu ziren atleta gazteak.

Nabarmentzekoak izan dira lortutako bost dominak. Alebin mailan, Eider Redondok altuera-jauzi proban (1,35 m.) eta 150 metro lasterketan (20,42) lehen postua eskuratu zuen.

Podiumeko bigarren mailara igo ziren Maider Gasalla (1,32 m., altuera-jauzi proban) eta Maddi Fernandez (7,75 m., pisu jaurtiketa proban).

Azken domina brontzekoa izan zen, eta Sara Zarouailek eskuratu zuen pisu jaurtiketan (7,66 m.).

Podiumetik gertu ere izan ziren beste kirolari gazte batzuk ere.



Eskolarteko Gipuzkoako txapelketan parte hartu duten atletetako batzuk. OSTADAR ATLETISMOA

Hala nola, Iraia Etxegia (7,65 m.) laugarren izan zen pisu-jaurtiketa proban eta Oihane Belartietia (9,98 m.) eta Lucia Muiños (9,63 m.) jauzi hirukoitzean laugarren eta seigarren izan ziren, hurrenez hurren.

## Bi hitzordu

Ostadarreko kideek eskolarteko txapelketako bigarren jardunaldia

Iruten izango dute hilaren 10ean, igandearekin.

Ez da asteburuko hitzordu bakarra izango. Hilaren 9an, larunbarekin, federatuek Adin Txiki kioen Gipuzkoako Txapelketako lehen jardunaldia lehiatuko dute Ordizian.

Prestatzaileek espero dute bi probetan atleta gazteak lehen postuetan egotea.



Lasarte-Oria Trail elkarteko kide eta lagunak, Etxala mendian. LASARTE-ORIA TRAIL

## Elurretan eta errepidean gozaten

Lasarte-Oriako korrikalariak eta herriko taldeetako kideak hilaren 3an errepidean eta mendian ibili dira euren zaletasunez gozaten.

Donostian, Maratoi Erdia eta 10 kilometroko proba jokatu ziren. Hainbat izan ziren bi probetan parte hartu zuten herritarrek eta nabarmentzekoak dira proba motzean lortutako emaitzak: Jon Presa Herranz (32.17) eta Raul Gomez Margallo (32.37) herritarrak hirugarren eta laugarren postuan sailkatu ziren.

## Urteko lehen irteera

Bestalde, egun berean, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideek eta lagunak urteko lehen irteera egin zuten.

Urnietako Besabi jatetxean hasi, Onddi, Etxala, Mandoegi eta Urepeleko mendiak zeharkatu, eta Leitzara iritsi ziren. 24 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboko ibilbidea egin zuten. Ibilaldian zehar eguraldia lagun izan zen arren, elur malutaren bat erori zen eta ingurune txurituaz gozatu ahal izan zuten. Leitzan, gainera, indarrak berreskuratzeko babarrun jana dastatu zuten.

Hurrengo irteera maiatzaren 22an antolatu dute elkarteko kideek. Leizta eta Lekunberri arteko ibilbidea izango da eta bazkideei eta elkarteko lagunei gonbita egin diete izena emateko.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONAL MAILA</b>
<b>Amaiak Bat KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:30. Errotazar, Deban.
<b>GORENGOEN MAILA, IGOERA</b>
<b>Ostadar SKT - Zumaiako FT</b> Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
<b>ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Astigarragako Mundarro FKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:45. Zarkumendegi, Astigarragan.
<b>OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA</b>
<b>Burumendi FG - Ostadar SKT</b> Igandea. 17:00. San Miguel, Mutrikun.
<b>JUBENIL 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT A - Urnieta KE B</b> Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
<b>OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Ordizia KE</b> Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
<b>KADETE 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Texas Lasartearra CF - Zestoa KB</b> Igandea. 12:05. Michelin kirol gunean.
<b>KADETE 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Sporting de Herrera - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 12:00. Herrera, Donostian.

<b>Ostadar SKT A - Antigua Luberrri KE B</b> Igandea. 13:50. Michelin kirol gunean.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>1. MAILA</b>
<b>Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Martutene La Terraza</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
<b>2. MAILA</b>
<b>Getariako KETA FT - Eguzki ISU Leihoak</b> Ostirala. 20:30. Sahatsaga kirol. Getarian.
<b>INFANTIL MAILA, GIPUZKOAKO TX.</b>
<b>Antiguoko KE C - Eguzki AF</b> Larunbata. 09:30. Pio Baroja kirol. Donostian.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>SENIOR 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Easo</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>SENIOR 2. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Añorga Saskibaloia</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>SENIOR 3. MAILA</b>
<b>Elorri-Aldapa - Ostadar SKT</b> Larunbata. 13:00. Elorri pil. Alegian.
<b>JUNIOR ERRENDIMENDU</b>
<b>Mondragon Unibertsitatea - Ostadar SKT</b> Larunbata. 14:00. Iturripe kirol. Arrasaten.

<b>KADETE ERRENDIMENDU</b>
<b>Ostadar SKT - Oiarso SKT</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - SaskiAxular</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>AVK Bera Bera - Gesalaga Okelan Zarautz RT</b> Larunbata. 17:30. Kote Olaizola Miniestadioa, Donostian.
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>La Unica RT B - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT</b> Larunbata. 15:00. UPNA, Iruñean.
<b>16 URTEZ AZPIKOA</b>
<b>Getxo RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT</b> Larunbata. 10:30. Fadura, Getxon.
<b>PILOTA</b>
<b>LAU ETA ERDI, SENIORRA 1. MAILA</b>
<b>Tolosa - Intza KE</b> Larunbata. 10:00. Beotibar, Tolosan.
<b>LAU ETA ERDI, JUBENILA 2. MAILA</b>
<b>Eibar - Intza KE</b> Ostirala. 18:30. Astelena, Eibarren.

<b>LAU ETA ERDI, KADETEA 2. MAILA</b>
<b>Mundarro - Intza KE</b> Larunbata. 10:00. Udalekoa, Astigarran.
<b>IGERIKETA</b>
<b>ESPAINIAKO TXAPELKETA</b>
<b>Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberriak Junior mailako Neguko Espainiako Txapelketan parte hartuko dute.</b> Larunbatetik asteartera. Torremolinos, Malagan.
<b>TEKNIFIKAZIOA</b>
<b>Buruntzaldea IKTko Iñaki Garcia, Ibon Elola eta Mario Amantegi alebinek Gipuzkoako Federazioak antolatutako teknifikazio saioan parte hartuko dute.</b> Larunbata. Goiza osoa. Paco Yoldi kir., Donostian.
<b>ZALDI LASTERKETAK</b>
<b>2. JARDUNALDIA</b>
<b>2022 urteko zaldi lasterketen bigarren jardunaldia jokatu da. Sukoa burdindenda, Santana Informatica, Merceria Lenceria Aritz, Rotulos Bizker eta Aldaz Hartz Klinika sariak lehiatuko dira.</b> Ostirala. 11:35. Hipodromo, Donostian.

<b>ATLETISMOA</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Ostadar Atletismoa saileko kideek zein herritarrek Adin Txiki eta Master mailako Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia lehiatuko dute.</b> Larunbata. 16:00. Ordizian.
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Ostadar Atletismo Eskolako kideek Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia lehiatuko dute.</b> Igandea. 10:00. Playaundi, Iruten.
<b>LASTERKETA</b>
<b>BERAKO MARATOI ERDIA</b>
<b>Herriko korrikalariak Berako Mendi Maratoi Erdian parte hartuko dute.</b> Igandea. 09:00. Bera, Nafarroan.
<b>BTT</b>
<b>BMW LURAUTO BTT LASARTE-ORIA</b>
<b>BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria probaren 11. edizioa lehiatuko da.</b> Igandea. 09:00. Antonio Mercero plazan.
<b>MENDI IGOERAK</b>
<b>OPAKURA IGOERA</b>
<b>Lasarte-Oriako gidariek XIV. Opakura igoera proban parte hartuko dute.</b> Larunbata. 12:00. Opakua, Araban.

# Dominak eta errekorrak lortu ditu Zudairek Berlinen

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezok Berlin Para Swimming World Series lehiaketan parte hartu du Espainiako selekzioarekin. Bere ohiko mailan aritu da eta urrezko domina bat zein Espainiako lau errekor berri lortu ditu igerilari gazteak

## Txintxarri

Martxoaren 31tik apirilaren 2ra, 36. IDM Berlin Para Swimming World Series proba jokatu da Berlinen. Igeriketa egokitutako lehiaketa horretan nazioarteko kirolariak batu dira eta bertan izan da Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezo.

800 m. estilo libreko proban lortu du podiumeko lehen mailara igotzea, baina gainerako probetan lehen postuetan izan da. Gainera, bere markak ondu eta Espainiako lau errekor berri ezarri ditu.

Igeriketa taldeko kideak lau egunetan sei probatan parte hartu du. Estilo libreko 100 m., 200 m., 400 m. eta 800 m. probetan igeri egin du eta 100 m. bular zein 200 m. lau estilo probetan ere lehiatu da.

Sari gorena 800 m. estilo libreko proban lortu du Zubietako gazteak. 10.36,34ko denbora egin eta urrezko domina jantzi du. Alabaina, gainerako probetan ez da gaizki ibili eta finaletan



Nahia Zudaire Borrezo, Berlinen lortutako dominarekin. BAT BASQUE TEAM

izan da. 200 m. estilo libreko proban (2.27,72), 100 m. bular (50 m. pasea, 48,28 eta 100 m., 1.43,34) eta 200 m. lau estilo (2.58,75) probetan markak ondu eta Espainiako errekor berriak ezarri ditu. Eta 100 m. zein 400 m. estilo

libreko probetan ere bere marka pertsonaletatik gertu geratu da. Azken proba horretan, gainera, podiumetik pauso batera izan da; laugarren postua eskuratu du.

Lehiaketatik haratago, Buruntzaldea IKTko prestatzaileak pozarren daude Zudaire berriro bere ohiko mailan lehiatu delako. "Berlinen bere maila berreskuratu du (S8, SB7 eta SM8) eta hori oso albiste ona da," onartu dute.

## Bi hitzordu

Buruntzaldea IKTko igerilariak ez dute atsedetik hartuko eta bi hitzordu izango dituzte. Taldekide Garazi Etxeberriak Junior mailako Espainiako txapelketa lehiatuko du, apirilaren 9tik 13ra, Torremolinosen (Malaga). 100 m. zein 50 m. estilo libreko probetan parte hartuko du herritarrek.

Bestalde, taldeko hiru alebinek Gipuzkoako Federazioak antolatutako teknifikazio saioa izango dute, hilaren 9an.

# Intzako pilotariak, lau partidatik bi garaipen Lau eta erdikoan

Beñat Olazabal kadeteak eta Peru Urdanpilleta jubenilak euren arerioak garaitu dituzte lehen jardunaldian

## Txintxarri

Eskuz banakako Lau eta erdiko txapelketa hasi dute Intzako Pilotariak. Hilaren 2an, lau partida jokatu zituzten Michelin Kirol guneko pilotalekuan eta emaitza desberdinak izan zituzten.

Ongi hasi zen jardunaldia. Kadete 2. mailako neurketan Intzako Beñat Olazabalek Tolosako Goikoetxea izan zuen aurrez aurre eta 22-16 garaitu zuen. Lasarte-Oriako pilotaria nagusi izan zen arren, akats batzuk egin eta aurkaria markagailuan hurbildu zitzaion.

Jon Pello Artetxe seniorrak jokatu zuen bigarren norgehiagoka. Senior 1. mailako Hernaniko Salaberriren aurka aritu zen. Nahiz eta herritarrek partida ona burutu, azken minutuetan neurketak ihes egin zion herritarri. Partida hasieran indarrak berdinduta zeudela ikusi ahal izan zen; bi pilotariak tanto politak egin zituzten. Alabaina, partida erdian Salaberriak jarraian hainbat tanto lortu eta tarte ireki zuen, 12-18. Artetxek ez zuen amore eman eta puntu batera geratzea lortu zuen, 17-18. Ahaleginak, ordea, ez ziren nahikoak izan.



Olazabal kadetea, lehian. TXINTXARRI

Hernaniko aurkaria azken tantoetan finago ibili zen; 19-22 irabazi zuen.

Jubenil 2. mailako pilotarien txanda izan zen azkenik. Lehenik, Peru Urdanpilletak Zazpi Iturriko Mugika garaitu zuen, 22-19. Partida berdindua izan zen arren, Urdanpilletaren kolpearen potentziak eta luzera jokatzek etxeko pilotariaren alde jarri zuten markagailua.

Jubenilen bigarren neurketan, Haritza Diaz de Gereñuk partida zailagoari aurre egin behar izan zion. Oiarzungo Mitxelena nagusi izan zen. Hala ere, herritarrek ongi egin zion aurre egoerari eta defentsa sendoari esker, hamalau tanto egitea lortu zuen.

# LOKEko judoek, dominak Beterano zein Kadete mailan

Asier Sagastik beteranoak eta Unai Guisado kadeteak urrezko, zein brontzezko postuak lortu dituzte

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko (LOKE) judoek hitzordu bikoitza izan zuten hilaren 2an, Gasteizen: Beteranoen mailako Espainiako Kopa eta Kadete mailako Euskadiko Txapelketa. Bietan podiumean egon ziren Lasarte-Oriako kideak

Asier Sagasti judokak mailaz aldatu berri du eta Beteranoen mailako lehen txapelketan parte hartu zuen, Gasteizen.

Master 1-2ko 100 kiloz azpiko mailan lehiatu zen herritarra Espainiako Kopako proban.



Asier Sagasti, Espainiako Kopako urrezko dominarekin. LOKE JUDO

Hiru borroka serio egin eta arerioak garaituz, urrezko domina jantzi zuen Sagastik.

Bestalde, Kadete mailako Aitor Santos, Unai Guisado eta Iker Izquierdo judoek Euskadiko txapelketan parte hartu zuten.

Santosek (73 kiloz azpiko maila) eta Izquierdok (55 kiloz azpiko maila) antzeko txapelketa egin zuten. Borroka bat irabazi eta beste bat galdu ostean, bigarren aukeran sartu ziren. Alabaina, ez zuten zorterik izan eta ezin izan zuten brontzezko dominaren lehiara iritsi.

Guisadok, ordea, bi borroka egin eta 60 kiloz azpiko maila final-erdian kanporatua izan zen. Hirugarren postuko borrokan ez zuen hutsik egin LOKEko kideak eta brontzezko domina eraman zuen.

# Seniorrek ezin Elorri-Aldapa garaitu ligako kanporaketan

Ostadar Saskibaloiko Senior 3. mailako taldea ligako azken fasera sailkatu da. 47-84 galdu du lehen kanporaketa

## Txintxarri

Ostadar Saskibaloiko Senior 3. mailako taldea ligako azken fasean lehian ari da. Bere multzoko zazpigarren postuan sailkatu zen eta bi taldeetako lehen zazpi taldeek bigarren fasea hasi dute.

Arerio gogorra du herriko taldeak, beste multzoko bigarren sailkatu den Elorri-Aldapa baitu aurrean. Kanporaketak joan eta etorriko neurketak dira eta lehen jardunaldian, hilaren 2an, Ostadarrek ezin izan zuen Elorri-Aldapa gaintu, 47-84.

Nahiz eta urdin-beltzak bigarren eta hirugarren laurdenean ederki borrokatu, lehen laurdenean lortutako errenta (6-24) ongi kudeatu zuen arerioak partida osoan zehar.

Ez da azken fasean sartu den talde bakarra. Junior Errendimendu taldeak ere lortu du liga lehiatzeko sailkatzea. Mondragon Unibertsitatearen aurka neurtuko ditu indarrak lehen partidari.

Bestalde, Kadete errendimendu taldea jaitzierako postuetan geratu da eta Oiarso SKT eta Panelfisa TAKE taldeen aurka jokatu du denboraldiko azken txanpan.

# Vithas Gaztedi, Euskadiko txapeldun

Vithas Gaztedi eta Universitario de Bilbao taldeek Euskal Liga jokatu dute atzeratutako jardunaldian. Norgehiagoka zirrargarria izan da Aizpea Racamonde herritarra kide duen taldearentzat. Partida galdu arren, gasteiztarrek lortu dute saria

## Txintxarri

Euskal Ligak jardunaldirik izan ez arren, hilaren 2an, zortzigarren jardunaldian atzeratutako Vithas Gaztedi eta Universitario de Bilbaoren arteko norgehiagoka jokatu zen, Bilbon. Partida garrantzitsua zen bi taldeak Euskal Ligako lehen bi postuetan baitzeuden eta txapelketa zegoen jokoan. Aizpea Racamonde herritarra kide duen Gasteizeko taldeak neurketa galdu zuen, 19-12; Euskal Ligako trofeoa zakuratu zuen, ordea.

Partida gogorra izan zen eta talde gorri-beltzak lan egin behar izan zuen Liga emango zion puntua eskuratzeko. Bilboko taldea nagusi izan zen lehen zatian eta Vithasek ezin izan zuen ezer egin, 14-0 amaitu zuten.

Markagailua aldeko izan ez arren, atsedenaldiraren ostean, Liga lortzeko bonusaren bila ateratu zen Racamonde kide duen taldea. Ederki ari zen Vithas



Vithas Gaztediko jokalariek trofeoa eman ostean. GAZTEDI RT/ IBON SÁENZ DE OLAZAGOITIA

jokoan, baina Bilbok berriro entsegua egin zuen. Txapelketak ihes egingo ziela zirudien. Alabaina, gasteiztarrek ez zuten amore eman eta bi entsegu eta gauzatzea lortu zuten. Horri esker, Euskal Liga eskuratzeko beharrezkoa zuten puntua lortu zuten. Partida amaitzearekin

batera, jokalariek –Aizpea Racamonde herritarra barne– eta zaleak saltoka hasi ziren.

Nahiz eta Liga amaitu, entrenamenduekin jarraitu beharko du Vithas Gaztedi taldeak. Apirila amaieran, Ohorezko B Mailako igoera fasea jokatuko du.



Infantil mailako Eguzki Areto Futbol taldeko jokalaria atera jaurtizten. TXEMA VALLES

## Eguzki Areto Futboleko infantilek, ezin etxean garaipena erdietsi

Ligako finalurreko lehen partida jokatu dute taldeko gazteek Antiguoko taldearen aurka; 3-7 galdu dute

### Txintxarri

Infantil Mailako areto futbol liga amaitzean da. Lehiaketako txapelketa erabakiko duen azken fasea jokatzen ari dira eta Eguzki Areto Futbol taldeko gazteak finalurrekoetan daude.

Hilaren 3an, joaneko partida lehiatu zuten Maialen Chourraut kiroldegian. Aurrean Antiguoko KE Clínica Dental Goyeneche taldea izan zuen herriko taldeak.

Ongi prestatu zuen partida Eguzki taldeak. Aurkariaren jokoa oztopatu eta erasoan aukera ederrak sortu zituen. Horri esker, bi gol ere sartu zituen atsedenaldira iritsi baino lehen.

Bigarren zatian, ordea, huts ugari izan zituen taldeak eta horietaz baliatuz partidari itzulia

eman zion aurkariak, 2-3. Eguzkik ez zuen amore eman eta berdinketa lortu zuen.

Alabaina, Donostiako taldeak beste lau gol lortu zituen eta kanporaketa maldan gora jarri zion Eguzkiri. "Zail izango da etorriko neurketan emaitzari itzulia ematea, baina saiatuko gara eta gure onena emango dugu," adierazi du Gorka Redondo entrenatzaileak.

Emaitzatik haratago, pozarren dago taldeak egindako lanarekin: "Ederki jokatu dute hurrek eta nagusi izan gara. Baina bigarren zatian izan ditugun huts txikiak baldintzatu dute emaitza. Hala ere, kontuan izan behar da gure taldea lehen urtekoa dela eta asko duela ikasteko".

## BTT proba egingo dute Andatza eta Buruntza mendietan barrena

500 kirolarik parte hartuko dute proban. Zailtasun mailaren arabera hiru ibilbide egin ahalko dituzte

### Txintxarri

Igandean, hilaren 10ean, goizeko 9:00etan, gure herrian erroto den BTT proba jokatuko da. Mx Racing eta Saiatuz kirol elkarteek elkarrekin antolatutako probak Lasarte-Oriako Udalaren eta Lurauto BMWren babesarekin jasotzen du eta guztiak batera egin zuten aurkezpena hilaren 6an.

500 bat parte-hartzaile izango dira aurten lehian. Antonio Mercero plazatik abiatu eta hiru ibilbide egingo dituzte (25 km., 32 km. eta 42 km) Andatza eta Buruntza mendietan barrena.

Iñaki Blanco Saiatuz taldeko kideak azaldu duenez, "aurreko urteetako formatua mantendu dugu. Lehenik, gurasoek haur eta gazteekin egiteko moduko ibilbidea dugu". Eta gero, zailtasun handiagoa duten goi mailako eta pro mailako ibilbideak daude. Andatza mendi inguruan egiten dira lehen biak eta azkenekoan Buruntza mendia ere igotzen da".

### Dorsalik ez libre

Agerraldian jakinarazi dutenez ez da dorsalik hartzeko aukerarik izango. MX Racing taldeko Iñaki

Larrea kideak azaldu duenez, "Gipuzkoako Foru Aldundiak 500era murriztu du kopurua eta parte-hartzaile kopurua bete da. Jendea gustura datorrela dirudi, sortzen den giroarengatik edo... eta azkar amaitu dira dorsalak".

Horrez gain, antolatzaileek dorsalak aurretik hartzeko gomendioa egin dute. Horretarako apirilaren 9an, larunbatearekin, Urbil merkatalguneko Eroskin banatuko dituzte. 10:30etik 14:00etara jaso ahal izango dira.

Larunbatean aukerarik ez dutenek egunean bertan ere aukera izango dute Antonio Mercero gunean dagoen lokalean, 07:30etik 08:30era.

Era berean, Larreak eskerrak eman nahi izan dizkie Lasarte-Oriako Udalarari eta Lurauto BMWri eman dute



Udal ordezkariak, antolakuntzako kideak eta babesleak, aurkezpenean. TXINTXARRI

babesarengatik eta hurrengo edizioa antolatzen hasi direla ere aurreratu du, "proba martxan dagoen bitartean, helmuga puntuan ez da ezer egiten. Hurrengoan hurrekin zerbait egiteko asmoa dugu eta horretan

ari gara lanean. Etorkizuna ere landu behar da".

Guztiak gonbita egin diete herritarrei Antonio Mercero plaza eta Askatasunaren parkera joan eta "bertan sortzen den giroaz" gozatzera.

## KOMIKIA



## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 8	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 9	LASA
IGANDEA, 10	LASA
ASTELEHENA, 11	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 12	GANDARIAS-URIBE
AZTEAZKENA, 13	DE ORUE
OSTEGUNA, 14	URBISTONDO
OSTIRALA, 15	URBISTONDO
LARUNBATA, 16	URBISTONDO
IGANDEA, 17	URBISTONDO
ASTELEHENA, 18	URBISTONDO
ASTEARTEA, 19	DE MIGUEL
AZTEAZKENA, 20	LASA
OSTEGUNA, 21	GANDARIAS-URIBE
OSTIRALA, 22	DE ORUE
LARUNBATA, 23	ACHA-ORBEA

IGANDEA, 24	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 25	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 26	LASA
AZTEAZKENA, 27	GIL
OSTEGUNA, 28	ACHA-ORBEA

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
M. Gomez Bravo:  
Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

**EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA** eskuragarri App Store edo Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofipuzkoa.com](http://www.cofipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

# txintxarri

Hurrengo TXINTXARRI paperean **martxoaren 29an** argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu albisteak:  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

**Imolasarte**  
Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. Esku onetan zaude!

943-53 64 81 | 629 63 18 38  
Inigo de Loiola. 2 behea.  
LASARTE-ORIA  
[info@inmolasarte.com](mailto:info@inmolasarte.com)

## SALDU

Marina D'O r urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukialdea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

## ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratudun apartamentua alokagai. 60 metro karratudun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

## LANA

## ESKARIA

Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Interna moduan lan egiteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 611 27 27 72.

Lan bila nabil. Hoteletan garbiketa lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsona zainduko nitzuzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak.

Harremanetarako zenbakia: 671 76 35 58.

Adineko pertsonak zainduko nitzuzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egiteko nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egiteko nuke. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egiteko nitzuzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara.

Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egiteko nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauean edo ospitalean

gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

## BESTELAKOAK

## HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko erreferentzia saio partikularrak eskaintzen ditut. DBH eta Baxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia: 697 45 97 96.

## SALEROSKETA

## SALDU

Eskiak eta helduentzako botak saltzen ditut. Interesa duenak dei dezala 605 70 57 89 zenbakira.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo txikia.  
12 €  
(BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
646 82 44 66

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide  
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,  
Egoitz Epelde, Jose Lanchas  
eta Iñigo Garcia.

## Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.500 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

Oraindik izenik ez zutela (Talde Sorpresa jartzen zuen kartelean) igo ziren eszenatoki batera (Jalgikora) aurreneko Lasarte-Oriako lau gazte: Jagoba Mendizabal (ahotsa), Julen Urruzola (baxua), Xuar Agirre (gitarra) eta Julen Urruzola (bateria). Ia hiru urte geroago itzuliko dira areto berera pertsona berberak, baina aldatu dira gauza batzuk: Kinada izena dute, eta esperientzia gehiago. Horren erakusgarri, iazko abuztuan *Estimuluen bidaia* diskoa argitaratu zutenetik han eta hemen eman dituzten emanaldi ugariak.

Kinadako ahotsak eta bateriak, Mendizabalek eta Urruzolak, jarri diote erritmoa elkarrizketari. Hurrengo bi kontzertuez, diskoaren eta taldearen sorreraz, etorkizunaz eta beste hainbat kontuz hitz egin dute TXINTXARRI-rekin.

**Gaur, apirilak 8, Donostiako Doka antzokian joko duzue, eta bihar, herrian, Jalgi kafe antzokian. Asteburu ederra duzue aurretik.**

**Jagoba Mendizabal:** Egia esan, proposamena jaso genuenean harrituta geratu ginen, ez genuen espero. Doka erreferentziazko aretoa da hemen inguruan.

**Julen Urruzola:** Gaztetxeetatik jartzen dira gurekin harremanetan, areto txikietatik, gertuko jendea, baina ez Dokaren dimentsioakoak, orain arte behintzat. No Konforme taldearekin joko dugu. Ez genuen ezagutzen, eta jarraitzaile pila bat zituela ikustean harritu egin ginen. Beste dimentsio bateko talde bat da, baina horrelakoekin jo ahal izatea sekulako aukera da guretzat.

**J.M.:** Dokakoa aurrera zihoala ikustean, Xuarri, Bartzelonan ikasten ari den taldekideari, bueltatzeko txartela erosteko esan genion. Hori baliatuta, Jalgiko kontzertua lotu genuen. Javi Mora jabearekin hitz eginda genuen lehendik, baina aukera onena biak asteburu berean egitea zen. **Alor horretan, Jalgi ere erreferentea da, herrian behintzat.**

**J.U.:** Bai. Herrian ez daude askoz areto gehiago kontzertuak emateko: garai batean Elebeltz, Furia Beltza, Oreka tabernara DJak ekartzen dituzte batzuetan...

**J.M.:** Martxa hartzen ari da Jalgi berriro, ea kontzertu eder bat egiten dugun.

**Areto berezia da Jalgi, musikariak eta zaleak metro (edo zentimetro) gutxigara egoten direlako. Mesede egiten dio horrek zuen musikari?**

# "Sortzen jarraitzeko gogoz gaude, hori argi dugu"

## JAGOBA MENDIZABAL ETA JULEN URRUZOLA KINADA TALDEKO KIDEAK

Musikazaleentzat, hona egun bat ederki bukatzeko plan bat: Kinada talde lasarteoriatarrek herrian joko du berriro, Jalgi kafe antzokian, apirilaren 9an, larunbatarekin, 22:30ean



Behetik gora: Urruzola, Mendizabal, Agirre eta Urruzola. LARRUN PIKABEA

**J.M.:** Ez dut esaten taldekide bakoitzak bestearen gainean egon behar duenik, baina haiek oso gertu izateak, ikusteak motibatuta daudela, dena ematen eta zaleak ere bai, abesten entzuten dituzula... Kontagiatu egiten du, berezia da.

**J.U.:** Gertutasun horrek indarra ematen dizu. Pandemiagatik jarritako neurriak kendu izanak laguntzen du horretan.

**Zuen Instagram kontuan jartzen du "punk rock melodikoa" egiten duzuela.**

**J.U.:** Bai, beno, rock-a bada, hori seguru, baina zaila da estiloa definitzea, gutako bakoitzak bere gustuak eta erreferentiek ditu. Musika genero bat edo bestea izan, ikusten badugu ona dela eta zerbait egin dezakegula, aurrera.

**Nola batu zenuten hori dena 'Estimuluen Bidaia' diskoan? Sortze prozesua erraza izan al zen?**

**J.U.:** Dena aldatu zen disko bat grabatzea erabaki genuenean, serioago hasi ginen lanean, abestiak sakonago lantzen. Estudioan sartu ginenerako hiru bat kanta eginda genituen.

**Ozen Estudioan grabatu zenuten lana. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

**J.M.:** Jurgi [Taboada] eta bere estudioa Instagram bidez ezagutu genuen, eta harekin jarri ginen harremanetan. Hasiberria izan arren, oso ona zen, asko zekien, oso motibatuta zegoen. Prozesuaz asko disfrutatu genuen.

**J.U.:** Uste dut asmatu genuela. Estudio propio bat ez zeukan, baina grabaziorako tresna guztiak

bai, gure lokalera ekarri zituen... Gainera, guretzat aukera hobea zen ekonomikoki ere.

**Esan bezala, 'Estimuluen bidaia' izena du diskoak. Zergatik?**

**J.U.:** Kinada hitzak ere hori esan nahi du, estimulua, eta diskoarekin lotu genuen kontzeptua.

**Hori zen hurrengo galdera, taldearen izenarena, baina aurreratu egin zarete.**

**J.M.:** Taldearen izenarekin ibili ginen bueltaka, beste aukera batzuk aztertu genituen. Batez ere, *Legez kanpo* gustatu zitzaigun, baina hartuta zegoen!

**J.U.:** Fisiologia ikasten ari naiz, eta pentsatu nuen terminoren batek balio zezakeela talde baten izenerako. Kinada ikusi, taldekideei proposatu, eta aurrera egin genuen. Estimulu bat da, neuronen artean gertatzen dena, eta nerbio sistemara doana gero.

**Noiz batu zineten taldea sortzeko?**

**J.U.:** Urru, Xuar eta hirurok kuadrilla berekoak gara, eta hitz eginda genuen talde bat egitea. Abeslaria falta genuen.

**J.M.:** Azken Ostiral baten ostean, Xuarrek komentatu zidan taldearena, eta entsegetara joaten hasi nintzen. 2018ko azaro aldera izan zen hori.

**J.U.:** Lehen kontzertua Jalgin eman genuen, 2019ko Sorgin Jailetan. Izenik ere ez genuen oraindik, *Talde Sorpresa* gisa joan ginen kartelean. Oso urduri geundela gogoratzen dut.

**J.M.:** Desastre bat izan zen (barreak).

**J.U.:** Zentzu horretan, polita da Jalgira itzultzea, lehen aldi horretatik asko eboluzionatu dugulako, esperientzia hartu... Ez gara horren urduri igotzen orain eszenatokietara.

**Nolako harrera izan du diskoak eta taldeak? Zer esan dizue jendeak?**

**J.U.:** Ingurukoengandik, lagun kuadrillarengandik-eta, babes handia sentitu dut, ilusioa egin die ikusteak gertuko batzuek disko bat egin dutela. Musikalki ez da beste munduko ezer, egitura sinplea du, baina hori bai, ez genuen espero soinu kalitate hori, eta horrek zaleak ere harritu ditu; askok esan digute.

**Beste disko bat prestatzeaz hitz egiten hasi al zarete?**

**J.U.:** "Disko" hitza ez dugu aipatu oraindik, baina sortzen jarraitzeko gogoz gaude, hori argi dugu.

**J.M.:** Entzuleei begira ere, ez ditugu beti kanta berberak jo nahi; pare bat berriekin ari gara, oraingoz.

Elkarrizketa, osorik,  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

## LASARTE-ORIA 22. KORRIKA

Euskal Herri osoa zeharkatzen ari da 22. Korrika. Apirilaren 8an iritsi da herrira, eta ongiatorri beroa egite aldera, egun osoko egitaraua prestatu du Muntteri AEK euskaltegiak, Lasarte-Oriako hainbat eragilerekin elkarlanean. Goizean, ikastetxeetako gazteen txanda izango da: 11:00etan hasita, erdigunea zeharkatuko dute Korrika Txikia eginez; ondoren, Okendo plazan, koreografia berezi bat dantzatu eta makarroi platerkada eder bana bazkalduko dute. Digestioa egiten laguntzeko, bingo musikatua egingo dute. Arratsalde eta iluntzeko jarduerak euskal jolasak, Okendo plazako txoznako barraren irekiera, Earra bertso eskolako ikasleen jaialdi musikatua, Dinbi Banda taldeak gidatutako batu-poteoa eta herriko bost elkarte gastronomikok prestatutako afaria izango dira. Apirilaren 8an, Lasarte-Oriako, egun osoan zehar.



## OSTIRALA 8

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Egun horretan iritsiko da 22. Korrika Lasarte-Oriara, Zubietatik, 07:11n. Egun horretarako egitarau zabala prestatu du Muntteri AEK euskaltegiak, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean.

**11:00etan**, Korrika Txikia. Bi ordu geroago koreografia egingo dute, Okendo plazan.

**13:30ean**, makarroi jana ikasleentzat, Okendon. Ondoren, bingo musikatua.

**17:30ean**, euskal jolasak Ostadar SKTren eskutik, Okendon.

**18:00etan**, barraren irekiera, gazte mugimenduaren eskutik, Okendon.

**19:00etan**, bertso jaialdia, Earra eskolako eskutik, Jalgin.

**19:30ean**, batu-poteoa, Dinbi Banda taldeak gidatuta.

**20:30ean**, afari merienda. Elkarte gastronomikoen prestatuko dute. Sarrerak ilargi, Jalgi eta Artizar tabernetan daude salgai: helduek, 13 euro, eta haurrek, 5. Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Licorice Pizza* pelikula proiektatuko du. Sarrerak 6 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Manuel Lekuona, 20:30ean.

## LARUNBATA 9

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Spasmo Teatro konpainiak *El Mundo Lirondo* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerak 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Kinada punk rock talde lasarteoriatarrek joko du Jalgi kafe antzokian. Sarrera, doan. Jalgi kafe antzokia, 22:30ean.

## IGANDEA 10

### LASARTE-ORIA Zinema

*Kaporito, el guardián de la montaña* filma proiektatuko dute. Sarrerak 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Código emperador* pelikula emango dute. Sarrerak 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

## ASTEAZKENA 13

### LASARTE-ORIA Opera

*Romeo y Julieta* klasikoaren proiektio digitalaz gozatu ahaliko dute lasarteoriatarrek. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute

eta sarean ([ticketak.kutxabank.es](http://ticketak.kutxabank.es)) zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

## OSTIRALA 22

### LASARTE-ORIA Zinema

*Espíritu sagrado* pelikula emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 20:30ean.

## LARUNBATA 23

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Lehendakari Gaia* antzezlanaren emanaldia egingo du Txalo Produzioak konpainiak. Sarrerak 6 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

## IGANDEA 24

### LASARTE-ORIA Zinema

*Sonic 2* pelikula proiektatuko dute. Sarrerak 4 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Competencia oficial* filma emango dute. Sarrerak 6 euro balio dute. Manuel Lekuona, 19:30ean.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUELLEKUONA

'*Licorice Pizza*' Ostirala 8 20:30.

'*Kaporito, el guardián de la montaña*' Igandea 10 17:00.

'*Código emperador*' Igandea 10 19:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

'*Peter Rabbit 2: A La Fuga*' Igandea 10 17:00.

'*La última película*' Igandea 10 19:30.

### Astelehena 11

19:30, 22:00.

### USURBIL

#### URBIL

'*Animales fantásticos 3*' Ostirala 8 15:45, 17:05, 18:00, 19:00, 20:20, 21:20, 22:15.

Larunbata 9 12:05, 15:45, 17:05, 18:00, 19:00, 20:20, 21:20, 22:15.

Igandea 10 12:05, 15:45, 17:05, 18:00, 19:00, 20:20, 21:20, 22:15.

Igandea 10 12:05, 15:45, 17:05, 18:00, 19:00, 20:20, 21:20, 22:15.

Igandea 10 12:05, 15:45, 17:05, 18:00, 19:00, 20:20, 21:20, 22:15.

'*The Batman*' Ostirala 8 21:40.

Larunbata 9 12:00, 21:40.

### Igandea 10

12:00, 21:40.

### 'Morbius'

#### Ostirala 8

16:50, 19:25, 22:00.

Larunbata 9 12:05, 16:50, 19:25, 21:05, 22:00.

Igandea 10 12:05, 16:50, 19:25, 21:05, 22:00.

'*Sonic 2*' Ostirala 8 15:50, 16:55, 18:45.

Larunbata 9 12:15, 15:50, 16:55, 18:45.

Igandea 10 12:15, 15:50, 16:55, 18:45.

'*Canallas*' Ostirala 8 19:50, 22:25.

### Larunbata 9

12:05, 19:50, 22:25.

### Igandea 10

12:05, 19:50, 22:25.

### 'The Bad Guys'

#### Ostirala 8

15:55, 18:30.

#### Larunbata 9

15:55, 18:30.

#### Igandea 10

15:55, 18:30.

### 'Camera Café, la película'

#### Ostirala 8

15:45.

#### Larunbata 9

15:45.

#### Igandea 10

15:45.

### 'CODA'

#### Larunbata 9

12:10.

#### Igandea 10

12:10.



## LABURPENA

### 'Licorice Pizza'

**Zuzendaria:** Paul Thomas Anderson. **Gidoia:** Paul Thomas Anderson. **Argazkia:** Paul Thomas Anderson, Michael Bauman. **Ekizleak:** Ghouardi Film Company, Bron Studios, Focus Features. **Herrialdea:** Amerikako Estatu Batuak (2021). **Iraupena:** 133 minutu. **Generoa:** Komedia, drama. **Musika:** Jonny Greenwood. **Aktoreak:** Alana Haim, Cooper Hoffmann, Sean Penn, Bradley Cooper, Tom Waits, Ben Safdie, Joseph Cross, Skyler Gisondo, Mary Elizabeth Ellis, Ryan Heffington, Nate Mann, John Michael Higgins, Harriet Sansom Harris.

## Maitasun istorio baten kontakizuna

Alana Kane (Alana Haim) eta Gary Valentine (Cooper Hoffman) dira protagonistak, eta Paul Thomas Anderson-ek zuzendutako *Licorice Pizza* filmak kontatzen du haien arteko maitasun istorioa: nola ezagutuko diren, elkarrekin nola igaroko duten denbora eta harremana estutu ahala nola

maiteminduko diren, 1973. urtean, San Fernandon (Amerikako Estatu Batuak). laz estreinatuta zuten pelikula, eta sari entzutetsuenak irabazteko hautagaien zerrendan izan zen. Oscarretan, esaterako, hiru kategoriatan: film onena, zuzendari onena eta gidoi onena.

2021ean eta 2022an  
jaiotako haurrak

**HAURRESKOLAK**

**LASARTE-ORIAKO  
ANDREJOAKINA HAURRESKOLA**

**Izena emateko epea:**

**Matrikula:**

Apirilaren 11tik maiatzaren 9a arte

**Aurrez aurrekoa:**

9:30etik 12:30era eta

14:30etik 15:30era

**Online:**

[www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)



[www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)

Eskadri, argolana

ELUSKOJAURKARITZA GOBIERNO VASCO

Kalbario bidea, 2 Tel: 943-36 72 38  
[andrejoakina.lasarte-oria@haurrekolak.eus](mailto:andrejoakina.lasarte-oria@haurrekolak.eus)

Zuk jolasa ikusten duzu.  
Guk bere garapenean ere laguntzen dugu.



HARTU  
HITZORDUA!!!

**Ate Irekiak**

943-36 46 00

[adkomunikazioa@lhusurbil.eus](mailto:adkomunikazioa@lhusurbil.eus)

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

**Maiatzak 4**



Erdi Maila: 16:00 - 17:30

Goi Maila: 17:30 - 19:00

**Maiatzak 7**



Erdi Maila: 10:00 - 11:30

Goi Maila: 11:30 - 13:00

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

**ALDAZ HORTZ KLINIKA**

**RENOVE PLANA**  
**%15eko deskontua mota guztietako protesi finko eta erauzgarrietan**

**aldaz**  
hortz klinikak · clínicas dentales

943-36 63 77 LASARTE-TOLOSA-ELGOIBAR